

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Hasierako onespina ematea lehendik dauden bizitegitarako eraikinetan igogailuak instalatzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 16ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea lehendik dauden bizitegitarako eraikinetan igogailuak instalatzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza aldatzeari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, zernahi pertsona fisikok zein juridikok aukera izan dezan espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egoki jotzen dituzten alegazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, aldaketa hori behin betiko onetsiko da.

Eltziego, 2020ko uztailaren 8a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE